



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko azaroaren 23a

135. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—10-22/LEY-00017. 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak osoko zuzenketa ezetsi du (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—10-22/MOC-00093. Erabakia. Horren bidez, aitortzen da arte urbanoak, ondare eta arte arloko balio izugarria sortzeaz gain, hiriak eta bizigune txikiak dinamizatzen dituela. Kultura eta Kirol Batzordeak onetsia (3. or.).

—10-22/MOC-00098. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bide egokiak sor ditzan Nafarroako museoak Kultura eta Kiroleko Ministerioak sustatutako “Museoak sarean. Bidaiatu eta ezagutu” programari atxiki dakizkion. Kultura eta Kirol Batzordeak onetsia (4. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—10-21/PON-00004. Bitartekaritza nahiz gatazka-ebazpenerako beste teknika eta bide batzuk aztertzeke Ponentziaren txostena, Nafarroako herritarren beharrianetarako moduko bitartekaritza-eredu bat garatzea eta bultzatzea xede. Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordeak onetsia (5. or.).

—10-22/CIE-00003. Ikerketa batzorde bat eratzea, zenbait hitzarmen eta kontraturen bidez maskarak eta osasun arloko materiala erostearen gainekoa. Osoko Bilkurak ezetsi du (15. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-22/LEY-00017. 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua.

OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETA EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko azaroaren 17an, ezetsi egin du Navarra Suma talde parlamentarioak 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa.

Horrenbestez, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 132.5 artikuluan xedatuarekin bat, proiektua Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeari igorri zaio.

Iruñean, 2022ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-22/MOC-00093. Erabakia. Horren bidez, aitortzen da arte urbanoak, ondare eta arte arloko balio izugarria sortzeaz gain, hiriak eta bizigune txikiak dinamizatzen dituela.

KULTURA ETA KIROL BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kirol Batzordeak, 2022ko azaroaren 16an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, aitortzen da arte urbanoak, ondare eta arte arloko balio izugarria sortzeaz gain, hiriak eta bizigune txikiak dinamizatzen dituela”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du arte urbanoak, ondare eta arte arloko balio izugarria sortzeaz gain, hiriak eta bizigune txikiak dinamizatzen dituela turismoaren, ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren ikuspegitik.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuarekin premiatzen du:

– Egin dezala lanetarako laguntza eta finantziarioa emateko plan bat, hala eskatzen duten

udalerriek baliatu ahal izateko, aldi berean lanak kontserbatzeko, zaintzeko eta babesteko balioko duena, aurkezten diren unetik bertatik eta handik aurrera.

– Sor dezala ibilbide kultural bat arte urbanoaren alorreko ondarea duten udalerririk nafarretan zehar, eta sustatu dezala ibilbidea turismoaren eta ondarearen ikuspegitik erakargarria den elementu gisa.

– Kultura eta Kirol Departamentuak sustatu ditzala herritarrak sentsibilizatzeko eta kontzientziazteko zikloak, topaketak eta kanpainak, arte urbanoko obrak ezagutarazteko, babesteko eta zaintzeko, eta arte urbano ez diren edo bandalismo huts diren elementuetatik bereizteko”.

Iruñean, 2022ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00098. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bide egokiak sor ditzan Nafarroako museoak Kultura eta Kiroleko Ministerioak sustatutako “Museoak sarean. Bidaiatu eta ezagutu” programari atxiki dakizkion.

KULTURA ETA KIROL BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kirol Batzordeak, 2022ko azaroaren 18an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bide egokiak sor ditzan Nafarroako museoak Kultura eta Kiroleko Ministerioak sustatutako “Museoak sarean. Bidaiatu eta ezagutu” programari atxiki dakizkion”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

– Ekintza egokiak egin ditzan Nafarroako museoek, titulartasun publiko zein pribatukoek, aukera izan dezaten 'Museoak sarean. Bidaiatu

eta ezagutu' programari atxikitzeko, programaren erreferentziazko kultura-zentroen sarea handitu eta gure komunitatean turismo kulturala bultzatzeko, baita Nafarroako Foru Komunitateko herritarren kultura-mugikortasuna errazteko ere.

– Programa hori balioan jarri eta susta dezan, bai eta kultura ere, jatorriko hirian ibilbidea hasten denetik, Foru Komunitateko hirietako turismo-bulegoen eta Nafarroako Gobernuak kultura sustatzeko dituen komunikazio-bide guztien bidez.

– Turismo kulturala bultzatzea dezan, isuriez bezainbatean gutxien kutsatzen duten garraiobideen erabileraren bidez, kasu honetan, trenaren bidez”.

Iruñean, 2022ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

10-21/PON-00004. Bitartekaritza nahiz gatazka-ebazpenerako beste teknika eta bide batzuk aztertzeke Ponentziaren txostena, Nafarroako herritarren beharrianetarako moduko bitartekaritza-eredu bat garatzea eta bultzatzea xede.

MIGRAZIO POLITIKETAKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bitartekaritza nahiz gatazka-ebazpenerako beste teknika eta bide batzuk aztertzeke Ponentziaren txostena, Nafarroako herritarren beharrianetarako moduko bitartekaritza-eredu bat garatzea eta bultzatzea xede, Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordeak onetsia.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

PONENTZIA TXOSTENA

I. AURREKARIAK

1. 2021eko irailaren 30ean proposamen bat aurkeztu zen, talde parlamentario guztien eledunek izenpetua, eskatzen zuena parlamentuko ponentzia bat eratu zedila, bitartekaritza nahiz gatazka-ebazpenerako beste teknika eta bide batzuk aztertzeke, Nafarroako herritarren beharrianetarako moduko bitartekaritza-eredu bat garatzea eta bultzatzea xede.

Urriaren 13an, Nafarroako Parlamentuko Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordeak erabaki zuen ponentzia hori eratzea, eta horren berri eman zen 2021eko urriaren 18ko 122. zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

2. Ponentzia 2021eko azaroaren 3an eratu zen, eta honako foru parlamentari hauek izan ditu, Nafarroako Parlamentuan beren talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteek hautaturikoak: Jorge Esparza Garrido, Virginia Magdaleno Alegría, Blanca Regúlez Álvarez, Aranzazu

Izurdiaga Osinaga, Ainhoa Aznárez Igarza eta Maria Luisa De Simón Caballero jaun-andreak. Halaber, ponentziara atxikia izan da Legebiltzarreko legelari Nekane Iriarte Amigot andrea.

Aipatu eratze-bilkuran, ponentziaburu gisa Aranzazu Izurdiaga Osinaga andrea hautatu zen, eta ponentziaren barne-funtzionamendurako arauak onetsi ziren, zeinak 2021eko azaroaren 10eko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitziren.

Ponentziaren jardunean zehar, legelari Ignacio Ordoki Guarch jauna aritu da Nekane Iriarte Amigot andrearen ordez.

3. Ponentziak ahalegina egin du, bere eratze-UNETIK aurrera, bere azterlanaren arreta-gaia arlo desberdinetatik ikertzeke, eta horretarako laguntza eskatu die Justizia Zuzendaritza Nagusiari, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiaren Lan Zerbitzuari, Hezkuntza Departamentuaren Bizikidetzeta eta Hezkidetzeta Atalari, Eskubide Sozialen Departamentuko Familia Bitartekotzaren Zerbitzuari eta beste erakunde publiko batzuei; adibidez, Arartekoari.

Halaber, ponentziak bilkura-egutegi bat adostu zuen, eta aldi horretan ahalegina egin da zeresana zeukaten gizarte-eragile guztien agerraldia bideratzeko: bitartekaritza eta gatazka-ebazpenerako bestelako tekniketara adituak diren pertsonena (nazioarteko, nazioko nahiz Nafarroako eremuetakoak); Nafarroako abokatuen elkargo desberdinen ordezkariena eta gizarte-laneko, psikologiako eta ekonomialarien lanbide-elkargoen ordezkariena, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren, Nafarroako Unibertsitatearen eta bitartekaritza-erakundeen ordezkariena; epailetzaren ordezkariena, zuzenbide penal, zibil eta

administratiboaren arloetan; Fiskaltzaren ordezkariena eta Adingabeen Epaitegiko lantalde psiko-teknikoarenena; UGT, CCOO, LAB eta ELA sindikatuen ordezkariena; enpresarien eta bitartekaritzan zeresana daukaten beste elkarte eta kolektibo batzuen ordezkariena; bai eta gatazkak ebazteko beste bide batzuen ordezkariena, Gurutze Gorria kasu. 1. eranskin gisa gehitu da ponentzian parte hartu duten pertsonen zerrenda.

Horregatik guztiagatik, ponentzia honen 30 bileretan parte hartu duten guztiei eskerrak eman beharrean gaude beren esku-hartzeagatik bai eta dokumentazio naro eta baliotsua igorri izateagatik, zeina ponentziaren administrazio-espeditentean jasota geratu baita.

4. Ondorioz, eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 55.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki, ponentziak Parlamentuko Mahaiari jakinarazten dio bere lana amaitu duela, Mahaiak Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordeari dei egin diezaion, bidezkoa bada eztabaidari jarraipena emateko.

II. TXOSTENA

I. Eskumenak

Bitartekaritza-arloan Nafarroak dituen eskumenak kasuko gaiaren araberrakoak dira: batzuetan, Foru Komunitateak eskumen eskusiboa du, eta beste batzuetan, Estatuaren oinarritzko legedia garatu edo betetzekoa.

Alor zibila Nafarroaren eskumen historiko eta eskusiboa da, Konstituzioak aitortua denez (Konstituzioko 1. xedapen gehigarria eta 149.1.6 eta 8 artikulua eta Foru Hobetzearen 48.1 eta 2 artikulua), eta alor horretan aginpidea du bitartekaritza arautzeko, ezertan galarazi gabe Estatuaren eskumen eskusibo den zuzenbide prozesal zibila (Konstituzioko 149.1.6 artikulua), ez eta merkataritza-, lan-, zigor- eta administrazio-alorretako legedi prozesala ere. Alegia: Nafarroak eskumena dauka gai substantiboetan, baina ez prozesaletan, azken horiek Estatuaren eskumen eskusiboa direnez gero.

II. Testuingurua.

XX. mendearen amaieraz geroztik, nafar gizarteak izugarritzko eraldaketa jasan du, oso bereziki XXI. mendearen lehen bi hamarkadetan zehar zinezko arrapaladan izandako elkarren segidako aldaketen ondorioz, zeinak nabaritu baitira harreman pertsonal eta juridikoen gorakada eta dibertsifikazioan, giza interakzio orok berezkoak dituen gatazken kopuruaren eta konplexutasunaren areagotzea erakarririk.

Datozen urteotan, Nafarroak aldaketa eta eraldaketa handiei aurre egin beharko die, eta horrek orain artekoaz oso bestelakoa den egoera sozioekonomiko berri batera eramane gaitu. Agertoki berri horretan premia eta gatazka berriak sortuko dira, erantzun halaber berriak ematera behartuko dutenak, bermatze aldera gizartean sortzen diren gatazkak behar bezala ebazten direla.

Giza harremanen gehiegizko judizializazioak eragin du sistema judizialak gero eta erantzun motelagoak ematea, eta ez beti alderdien benetako interesen mesedetan, ezen, usu, suertatzen diren liskarrek osagai ez-juridikoak, nagusiki pertsonalak alegia, izan ohi dituzte, justizia tradizionalako sistemaren bitartez nekez ebatz daitezkeenak.

Ponentziak, alor desberdinetako adituen aburuak entzun ondoren, eta aurkezturiko dokumentazio ugaria aztertutik, hausnarketa egin du gure lurraldean pertsona fisikoek eta juridikoek dituzten gatazkak eta beharizanak ebazteko egokiak diren metodoak sustatu, bultzatu eta abiarazi beharri buruz.

Zenbait ponentziakidek baieztatu duten bezala, mende honetakoa bezalako gizarte ireki eta plural bati dagokiona izaera hori bera duen justizia-sistema bat da: sistema plural bat, eta ez bide bakarrek, edo jurisdikzioak prozesu judizialaren bitartez eskaintzen duena bezalakoa, baizik eta ildo ugari elkarlotzen dituen, haien bitartez gatazkarako erantzun adostu bat bideratzeko. Justiziarako sarbideak sinpletu eta zabalduko dituen eredu bat tankeratu beharra dago.

Azken batean, horixe da ADR sigla klasikoekin identifikaturiko Alternative Dispute Resolutions deritzene izandako bilakaerak jorratu duen ildo. Horietako batzuk, bitartekaritza-teknika kasu, ordenamendu juridikoan txertatuak izan dira; beste batzuk horretarako bidean daude, eta beste batzuek, hala nola zirkuluek eta konferentziek, arau-testuetan oraindik tokirik aurkitu ez eta praktikan daukate aplikazioa, han-hemenkako eta ez guztizko ezarpenez bada ere.

Teknika horietatik guztietatik bitartekaritza da garapenik handiena izandakoa. Nafarroa aitzindari izan da zigor arloko bitartekaritzaren ezarpenean, zeina zerbitzu publiko bihurtu baita 2018. urteaz geroztik. Eta arlo zibilean ere bai, non tradizio handia baitauka itunak, Foru Berriko 7. legeak agerian uzten duenez, zeinak paramientoaren gailentasuna ezartzen baitu. Askatasun zibila, ituna eta epaileen diskrezionaltasuna dira harreman pribatuen arauketa tankeratu duten Nafarroako

zuzenbidearen berezko printzipio inspiratzaileak, eta beste arlo batzuk ere taxutu dituzte.

Nahiz eta baieztar dezakegun bitartekaritzak ezarpena duela Nafarroan, ponentziaren bileretan zehar agerian geratu da ezarpen eta garapen haren hemenkako baizik ez duela izan lurralde osoan eta arlo desberdinetan; horrenbestez, ondorioztatzen dugu bitartekaritzak Nafarroan ez duela bere ahalbide osoa gauzatu.

Horrela, zigor arloan, erabakitasunezko aurre-rapausoak eman behar dira zigor arloko bitartekaritzatik justizia errestituatibora, barne harturik parte-hartzaile kopuru handiagoko beste teknika batzuk, hala nola zirkuluak eta konferentziak. Lan-esparru berriak ere ustiatu beharra dago, hala nola administrazio-eremuko bitartekaritza, oso gutxi garatuta dagoenez hor, edo hezkuntzaren eta komunitatearen eremuetakoa.

Azaldutako guztia aintzat harturik, ponentziak oldozpen-multzo bat ondu du; horietako batzuk orokorrak, eta beste batzuk, aztertutako eremu zehatz bakoitzerakoak.

III. Bitartekaritza-zeregina eremu desberdinetan

a) Mugarte orokorra

Arbitrajearekin batera, bitartekaritza dugu araugintzazko garapenik handiena izan duen tresna; bereziki, europar araudian du euskarri tinkoa, aipagarriena 2008/52/EE Zuzentaraua izanik, eta horrek auzi zibil eta merkataritza-zakoetako bitartekaritza buruzko 5/2012 Legearen bitartez izan duen trasposizioa. Arau horrek arlo zibil eta merkataritza-zakoetan eginiko bitartekaritza orori aplikatzeko den araubide orokor bat jasotzen du, zuzenbide pribatuko gatazken ebazpena den bezainbatean.

Legeak egiten duen taxuketan, bitartekaritza-lana metodo egoki bat da bi subjektu edo gehiagoren artean gatazka kudeatu eta ebazteko; haiek, berdintasun-egoeran eta liskarrekin zerikusirik ez duen hirugarren pertsona inpartzial eta neutral baten laguntzaz, ahalegina egiten dute irtenbide adostu bat aurkitzearren beraien arteko desadostasun eta kontrajartzeari. Akordioa lortu eta akordio hori erabatekoa izanez gero, amaiera ematen dio sortutako gatazkari, eta halatan ekidin egiten da auzitegi-prozesua, halako moldez non prozesu hori hasiera ere iristen ez den, edo jada hasitakoa bukarazten den.

Iristen duten akordioa partziala baldin bada, auzitegi-prozesua hasi edo, kasua bada, jarraitu beharko da adosturiko soluzioak barne hartzen ez dituen aferak edo zertzeladak ebazte aldera.

Nolanahi ere den, onena horixe izango baliatzeke ere, akordioa erdiestea ez da beti izaten bitartekaritza-prozeduraren emaitza, ez eta horren helburu bakarra ere. Bitartekaritzak, are akordio batera eramaten ez duenean ere, jarreraren hurbilketa lor dezake, bai eta haien artean dagoen tentsioa baretzea eta, bereziki, haien arteko komunikazioa berrezartzea edo hobetzea ere. Finean, “gatazkaren baretzea” ahalbidetzen du eta, kasu denean, ezinbesteko gerta daitekeen auzitegi-prozesuaren bitartezko ebazpena hobea izatea.

Negoiazioak edo gatazka-autokonponketarako beste metodo batzuek ez bezala, bitartekaritzak bereizgarri du “inter partes” kokaturik dagoen hirugarren baten jarduna. Hirugarren horrek prestakuntza dauka berariazko teknika eta trebetasunetan, eta haiek erabiltzen ditu, malgua den baina egituratuta dagoen prozedura baten bitartez alderdiei laguntze aldera gatazkari soluzio bat aurkitzen, asegarria izan dena biezat, haien premiei eta interesiei erantzuten dien heinean.

Bitartekaria bitartekaritza-prozeduraren funts-funtsezko osagaia da; prestakuntza espezializatua duen profesionala da, zeregintzat duena, besteak beste, alderdien artean onbidezko komunikazioa ahalbidetzea, horrenbestez negoziatio-prozesuaren osagaiak errazteko. Horregatik da garrantzitsua prestakuntza, espezializazioa eta kalitatea bermatzea, bai Foru Komunitatearen lurraldean diharduten bitartekariena, bai bitartekaritza-prozesuan –auzitegi barruko bitartekaritza barne- esku hartzen duten operadore guztiena.

b) Zigor arloa

Giza harremanen gehiegizko judizializazioak eragin du sistema judizialak gero eta erantzun motelagoak ematea, eta ez beti alderdien benetako interesen mesedetan, ezen, usu, suertatzen diren liskarrek osagai ez-juridikoak, nagusiki pertsonalak alegia, izan ohi dituzte, justizia tradizionalen sistemaren bitartez nekez ebazte daitezkeenak.

Gaur egungo zigor-sistema, erretribuziora eta prebentziora lerraturiko zigortze-justizia batean oinarritua, hankamotz ageri zaigu. Horregatik, zigor-zuzenbidearen bitartezko justizia-sistemaren krisia hartu da ahotan, bere eginkizunak ez dituelako egokiro betetzen; horregatik sortu da orain formula berriak bilatu beharra.

Operadore juridikoek –epaileek, abokatuek, fiskalek eta justizia-administrazioako legelariak– ohar-tarazi dutenez, ezin konta ahala aldiz, auzitegi-prozesuak are gehiago gaiztotzen ditu delitu bat egitetik eratorritako gatazka sozialak eta ondorioak. Hori bereziki sumatzen da askatasunaz

gabetzeko zigorren aplikazioari eta horren ondorio negatiboak dagokienez; izan ere, kasu ugarietan ez dituzte asetzen biktimaren premiak, eta birgizarteratze eraginkorrik ere ez da lortzen. Aitzitik: kasu jakin batzuetan, mota horretako zigorrak aplikatzeak mesede egiten dio arau-hauslearen kriminalizazioari, etiketatzeari eta estigmatizazioari, halatan haren etorkizun-aukerak baldintzaturik, erraztu egiten baitu hura delitu-ildotetan barneratzea, horietatik ateratzeko modurik gabe.

Asegabetasun hori horrela, eta askatasunaz gabetzeko zigorren betearazpenean birgizarteratze-metodoek izan duten porrot nabariak akuilatuta, operadore juridiko eta botere publikoen baitan eztabaida sakona abiatu da gatazkak ebatzte aldera orain arteko zigortze-justiziak dituen helburuez bestelakoak dituzten metodo egokiak erabiltzeari buruz.

Eta, ildo horretan, justizia errestitutiboak funtsezko aldaketa bat hezurramitzen du delitu-egintzei behatzeko eta erantzuteko moduan. Zigor-justiziari buruzko ikusmolde berri bat da, delitugileari dagozkion errestitutibo-helburuez harago doana, zigorpeko egintzan nahasirik dauden subjektu guzti-guztiak artatzearen. Eredu horrek zigorzuzenbideko urraketari ematen dion erantzuna ez da erruduna aurkitzea eta zigor bat jartzea soilik, baizik eta barne hartuko du kasuko biktima zehatzaren beharrezko asetzea zigorzuzenbidearen helburuak kaltetu gabe, horrela modua emanik delitu-egintzako protagonisten arteko zuzeneko edo zeharkako elkarrizketa pertsonalerako, eta ez zigor-prozesu klasikoan nagusi den burokratizazio eta gizagabetasunari; halatan, biktimari funtsezko zeregina ematen zaio.

Justizia errestitutiboaren erakusgarri nagusietako bat zigor-arloko bitartekaritza dugu. Nafarroan 2006az geroztik ezarrita dagoen teknika bat da. 3. Instrukzio-epaitegiak bultzada eman zion proiektu aitzindari baten bidez abiarazi eta 2008an finkatu zen, Zigor arloko Bitartekaritza Zerbitzua Iruñeko epaitegietan ezarriz, horretarako hitzarmena sinaturik Nafarroako Gobernuaren Justizia Zuzendaritza Nagusiaren eta ANAME-Bitartekaritzarako eta Gatazken Baketzerako Nafarroako Elkartearen artean. Hasiera batean, zerbitzua Iruñeko 1, 2 eta 3. instrukzio-epaitegiei eta 1, 2 eta 3. zigor-arloko epaitegiei eman zitzaizkien, eta, lortutako emaitza onak ikusirik, gainontzeko epaitegi eta barruti judizialek heda-tzen joan da, halako moldez non, 2018. urtetik aurrera, zerbitzu publiko bihurtu baita.

2021ean sortu da NAZBEJEZ-Nafarroako Zigor Betearazpeneko eta Justizia Errestitutibo-

ko Zerbitzua, Justizia Zuzendaritza Nagusiaren barrenean, eta zeharo esleitura dago Nafarroako Gobernuak zigor-prozesuaren fase guztietan, baita exekuzioan ere, justizia errestitutiboa bultzatzeko eta koordinatzeko eskumena.

Nahiz eta zigor-bitartekaritzako eta justizia errestitutiboko zerbitzua barruti judizial guztietan bermatuta dagoela ondorioztatu dezakegun, ponentziaren bileretan agerian geratu da horren ezarpena oso han-hemenkakoa izan dela, kasuko barrutiaren eta organo judizialaren arabera. Horrela, frogatu da zigor-bitartekaritza hautabide finkatua dela Iruñeko, Agoizko eta Lizarrako instrukzio-epaitegietan, eta ez hainbeste Tafallan. Tuterako alor judizialean, ordea, bide luzea dago eginkizun. Halaber ikusi da bitartekaritzan ipintzen diren espedienterik gehienak delitu arinei buruzkoak direla, eta oso urriak direla delitu astunengatik abiarazitakoak izanik bitartekaritzan ipintzen diren espedienteak.

Beraz, lurralde osoan uniformetasun-irizpideei jarraikiz bultzatu eta sustatu beharra dago bitartekaritza, eta beste teknika batzuei ere bultzada eman behar zaie, modua emanen dutenak gizarteak prozesuetan parte-hartze handiagoa edukitzeko eta, horrela, delituen ondorio kolektiboak, baita delitu astunak dituztenei ere, heltzeko. Xedea da teknika berriak ezartzea, hala nola konferentzia edo bilera errestitutiboak, zeinetan parte hartzen baitu arau-hausleen eta kaltetuen hurbileko pertsonen komunitateak, eta zirkulu errestitutiboak, zeinetan parte hartu behar baitute komunitatearen ordezkariak. Teknikarik ezagunenak horiek badira ere, badaude beste asko, Nafarroako Gobernutik bultzatuak izan beharrekoak.

c) Arlo zibila, zibila-familiakoa eta merkatari-tzakoa

Nafarroak eskarmentu luzea dauka familiaren arloko bitartekaritzan, eta jardun oso finkatua da gure foru lurraldean: bai esparru intrajudizialean, bai estrajudizialean.

Horrela, esparru intrajudizialean, Iruñeko eta Agoizko epaitegiek 114 kasu bideratu zituzten 2021. urtean. Bestetik, familia-bitartekaritza estrajudizialak gorakada iraunkorra izan du bere ibilbide guztian zehar. 2002. urtean, zerbitzuak bere jardura hasi zuenean, 27 espediente jorratu zituzten; 2019. urtean, baina, 301 espediente izan ziren, eta 231 espediente 2021ean.

Jurisdikzio zibila, eta batez ere familia-arloko prozesuak, aldaketa handiak pairatzen ari dira azken urteotan; bai legegintzakoak, bai jurisprudentzialak. Epaitegien esku-hartzeak gero

eta gehiagora behartzen du, eta krisian dauden familientzako laguntza-baliabideak ezartzea nahitaezkoa da epaileek modua izan dezaten benetako babesa emateko daukaten betebeharrak konstituzionala bete ahal izateko. Administrazio publikoari dagokio bermatzea baliabide horiek kalitate- eta espezializazio-irizpideak betetzen dituztela.

Nafarroa ez dago horretatik guztitik kanpo, eta gure Parlamentuan berriki Foru Berriari egin zaion aldaketak gure araudi zibila egokitu du familia-eredu berrietara eta familien beharrian berrietara. Araubide berri hori argiro lerratzen da gurasoen arteko gurasotasun-ituna sustatzera, familia-harremanak arautu eta gatazkak ekiditeko lehenbiziko hautabide gisa. Eta, ordezkari moduan, erabakimen zabala ematen dio epaileari, "favor filii" oinarritako printzipiotik abiatuta kasu zehatz bakoitzean neurriak hartu ahal izan dituzan, itunik ezean gainditze aldera testu zibil komuneko hutsuneak nahiz zurrunkeriak, azkenaldi honetan hain agerian geratuak, gauzatu diren egoera eta zirkunstantzia zehatz desberdinen ugaritasunaren ondorioz.

Aurkaritza-sistemak familia-jurisdikzioaren alorrean dituen mugatutasunak agerian geratu dira ponentziaren bilkuretan zehar. Izan ere, bertaratu diren profesionalak adierazi duten bezala, baldin eta sistema judiziala mugatzen bada alderdiei entzun eta haien eskakizunei buruz ebaztera, gerta liteke gatazka goriko egoeretan gurasoek elkarrekiko duten hautemate negatiboa hauspotua suertatzea. Horrelako egoeretan, lotsa-, sumin- eta etsaitasun-sentimenduak areagotu egin ohi dira guraso edo tutoreetako batek jendaurrean azaltzen dituenean, pertsonalki edo bere legegariaren nahiz lekuko bidez, bestearen ezaugarri eta portaera negatiboak; maiz asko, horiek beren egiazko neurritik kanpora aterata. Etsaitasun horrek etsaitasuna, sumina eta tentsioa barreiatzen ditu gurasoen eta seme-alaben arteko elkarrekintzetan, halako moduz non gorakada izan ohi duten kasuko gatazkak eta portaera kaltegarriak, eta familiako kide guztien egoera pertsonalak okerrera egiten duen.

Margarita Pérez-Salazar magistratuak azaldu zuenez, prozesu judiziala argazki bat da, baina dibortzioa edo banantzea prozesu luze bat dira, fase desberdinetatik iragaten dena eta judiziala baino askoz ere konplexuagoa dena. Horregatik, prozesu judizialak ez du banantzea edo dibortzioa konpontzen. Epaia ez dio amaiera jartzen liskarriari. Bananduta edo dibortziaz bizi diren kasuak, are gehiago adingabeekin egiten denean bizitzea, esan nahi du egunero afera askori aurre egin behar izaten zaiola, auzitegi-tako epai-betetzeari buruzko gatazketara iristen direnak askotan.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da bitartekaritza eta ituna txertatzea bikote-hausturako prozeduretan, kontuan izanik bikotekideak nolako egoera psikoemotionalan egon daitezkeen eta, bereziki, inplikaturiko seme-alaba adingabeak, egoera horiek haien bizitzetan eragiten duten zirrara handiaren ondorioz.

Foru Berriaz gain, apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legea, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa, erreferentziazko beste arau bat dugu Nafarroan, ezen, genero-ikuspegiak transbertsalki gurutzatu behar baditu politika publiko guztiak, bereziki garrantzitsua da familiaren alorrean. Izan ere, nekez har daiteke hizpide gisa bikote baten kideen arteko gatazka-konponketa, ez bada kontuan hartzen genero-desberdinkeria- ren egiturazkotasuna, errotuta dagoena genero-estereotipo eta -roletan, eta horietatik ere erator- tzen dena. Eta horiek oraindik ere nabarmenak dira, bereizgarriak eta estimu-sozial desberdina- ren jabe, halako moldez non botere-harrem- an desorekatuei eusten baitiete. Alde horretatik, ezin- bestekoa da bai bitartekari bai familia-esp- aruko gatazka-konponketako gainontzeko teknikei genero-ikusmoldea eranstea, eta administrazio publiko behartuta dago horretarako beharrezko- ak diren baliabideak bermatzera.

Nahiz eta ikusten den ezen familiaren esp- aruan jardun finkatua dela bitartekaritza, teknika horretaz edo gatazka-konponketarako beste modu batzuei buruz ezin dugu gauza bera esan jurisdik- zio zibilari eta merkataritzakoari dagokienez. Zigor-jurisdikzioan lorturiko emaitzak ikusirik, Nafarroako Gobernuak, 2016an, erabaki zuen esperientzia hori jurisdikzio zibilera eta merkatarit- zakora ere eramatea, asmo horrekin lankidetz- ahitzarmen bat sinaturik Iruñeko, Tuterako eta Liza- rrako abokatu-elkargoekin eta Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofi- zialarekin. Bestalde, 2018az geroztik Doako Laguntza Juridikoari buruzko Erregelamenduan sartuta dago. Emaitzak ez dira oso asegarriak iz- aten ari. 2017ko ekitaldian, izaera zibileko 36 afera igorri ziren Bitartekaritza Intrajudizialeko Zerbi- tzura; eta, 2019an, 26, zeinetatik 14 itxi baitziren bitartekaritza egitera iritsi gabe.

Iruñeko barruti judizialari dagokionez, azpima- rratu behar da ezen lehen auzialdiko epaitegiak pasa direla 2017an 18 igorpen egitetik 2018an 2 egitera, 2019an 3, eta 2020an bakarria egitera. Beste barruti judizial batzuek, Tafallakoak kasu, ez dute aferarik jurisdikzio zibilera igorri.

Arlo zibil-merkataritzakoan ere erabilera oso apala izan da; horren adibidea da 2020an 6 afera igorri zirela.

Datu horiek ikusirik, aztertu eta hausnartu beharrekoa da ea zergatik bitartekaritza ez den zeharo ezartzen esparru zibil eta merkataritza-koan. Hain zuzen ere, esparru horretan, gatazka pribatuenean, bitartekaritza lanabes hagitza eraginkorra suerta daiteke gai pribatu eta xedatzezkoetan sorturiko gatazkek ebazteko. Dazkan abantaila eta onura guztiak gorabehera, bai herritarrek oro har, bai operadore juridikoez, oso uzkur jokatzeko segitzen dute gai honetan. Horregatik, esparru honetan, beharrezkoa da bitartekaritzaren kultura eta gatazkek ebazteko beste teknika batzuk sustatzea eta bultzatzea oro har herritarren artean, ETE-enpresa txiki eta ertainen artean eta operadore juridikoen artean.

Kezka hori dela-eta, Estatuko Gobernuak lege-aurreproiektu bat aurkeztu du, gatazka-autokonponketako lanabes hau garatu eta bultzatzeko. Arau honek dakartzan berritasun behinenean artean, honako hauek dira aipagarri: 1) bitartekaritza estrajudizialak borondatezkotasun hutsezkoa izateari uzten dio, prozesu jakin batzuetan “aurrebaldintza prozesal” bihurtzen baita; 2) prozesu jakin batzuetan (familia, oinordetzak, jabetza horizontala...) alderdiak behartzen ditu demanda jarri aurretik bitartekaritzarako saioa egitera; eta 3) saio horretara ez agertuz gero, ondorioa izanen da ez dela kostu-ordainketari buruzko erabakirik hartuko kausa justifikaturik gabe agertu gabe geratu den alderdiaren alde.

Halaber xedatzen du organo judizialak ere egin dezakeela bitartekaritzarako bideraketa –intrajudizialerakoa–, probidentzia baten bidez, non alderdiei kostuen inguruko ondorioei ohartaraziko baitaie.

Ponentzia hau bat dator teknika horien erabile-ra sustatzeko eta bultzatzeko beharrari buruz, baina uste dugu bitartekaritza-zeregina prozesuzama gisa inposatuz eta horrek ondorioztat dakarren kostu-esleipena eginez eitea aldatzen zaiola bitartekaritza bezalako instituzio bati, zeinak bere oinarriko printzipioen artean alderdien borondatezkotasuna baitauka, eta eduki errealik gabeko prozesu-tramite huts bihurtzeko arriskuan ipintzen dela.

d) Administrazioarekiko auzien arloa

Ponentziaren jardunean zehar ikusi da bitartekaritzak eta beste teknika errestituribito batzuek ez dutela ia garapenik izan, ez administrazio-arloan ez eta administrazioarekiko auzien arloan ere.

Arlo intrajudizialean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko Legeak ez du esanbidez jasotzen auziak ebazteko ordezkotzko hetero-

konposizio-bideetara jotzeko aukerarik, baina halakorik debekatu ere ez du egiten. Autonomia-erkidego batzuetan, Katalunian kasu, arlo honetan emaitza oso positiboak lortu dituzten bitartekaritza-esperientziak landu izan dira.

Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiko magistratu Javier Fuertes López jaunak administrazioarekiko auzien alorreko bitartekaritzari bultzada ematearen aldeko jarrera azaldu zuen. Bere mintzaldian esplikatu zuen administrazioarekiko auzien alorreko bitartekaritza posible dela Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 86. eta 112.2 artikuluetan ezarritakoaren babesean, salbu eta pertsonen funtsezko eskubideei zuzenean eragiten dienean, ordena publikoaren kontrakoa denean eta/edo hirugarrenen interesei kalte egiten dienean.

Bitartekaritzak eta bestelako gatazka-ebazpeneko bide batzuek herritarri eta administrazioari dakarzkieten abantailak nabarmendu zituen: 1) administrazioa gizatiartzen du, herritarren hurbiltasunagatik eta prozeduraren balorazioagatik (interesdunari entzunaldia ematea, administrazioaren hurbiltasuna, zuzeneko tratua); denboranahiz diru-kostu txikiagoa du; 3) gogobetegarriagoa da; eta 4) higadura txikiagoa eta prozeduraren nahiz emaitzaren segurtasun handiagoa ekartzen du. Adierazitako ildotik, auzibidea bestelako hautabiderik ez dagoen kasuetarako erreserbatzearen aldeko aldarria (ultima ratio) egin zuen.

Administrazio-arloarean azpimarratu behar da talde parlamentario guztiak aho batez onetsitako lege-aldarazpena, xede hartzen duena Arartekoaren eskumenak hedatzea eta haren eginkizunen artean bitartekaritza jasotzea. Arartekoaren bitartekaritza-zerbitzuaren arduradun den aholkulari Font jaunak jakinarazi zuenez, 2021eko martxotik abendura arte 11 bitartekaritza-espediente izapidetu ziren; eta, 2022ko urtariletik maiatzera bitartean, 9 espediente. Ponentziari ezagutarazi zizkion datuetatik bi zertzelada nabarmendu behar ditugu: alde batetik, 13 espediente herritarrek edo herritarren kolektiboak eskatuta abiarazi ziren, eta horrek agerian jartzen du herritarren artean bitartekaritzak duen onarpen-maila; eta, bestetik, deigarria da bitartekaritzarako egin ziren 16 gonbidapenetatik onartu zirenak erdiak izan zirela, eta beste zortziak errefusatu egin zirela: udalek bi, mankomunitateek bi, eta Nafarroako Gobernuak lau. Horrek bistan jartzen du administrazioaren goganbearra.

Bitartekaritzak eta bestelako jarduera errestituribito batzuek garapen handiagoa izan duten arlo bat hezkuntzarena izan da. Hezkuntza-sistemak

ekimen positibo asko abiarazi ditu, pertsonen duintasunarekiko, guztien onurarekiko eta giza eskubideekiko begirunetsua izanen den bakezko gizarte-elkarbizitza zailtzen duten mehatxu askotarikoei aurre egiteko. Munta handikoa da gizaki ororen duintasunarekiko errespetua eta nork bere ideiak azaldu eta aldezteko bitarteko bezala hitzak duen balioa aintzat hartuak izatea, hezkuntza-erkidegoaren baitako gatazkak modu baketsuan prebenitu eta ebatzte aldera.

Ekimen horien balioa gorabehera, ikusi da praktika horietan esku hartzen duten profesionalen prestakuntza indartu beharra dagoela, bai eta gehitu ere ikastetxeetan elkarbizitzari eskaintzen zaizkion orduen kopurua; eta, horrez gain, gune egokiak atontzea premiazkoa dela.

e) Lanbide-arloa

Jurisdikzio Soziala arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legeak lan-gatazken ebazpen estrajudizialerako tekniketan sakontzea ahalbidetu zuen, hainbestearino non, haren I. liburuko V. tituluak "prozesua ekiditea" izenburua baitauka, eta bertan arautzen dira aurretiazko adiskidetze eta bitartekaritza, arbitraje-laudoak eta lan-arloko auzibidearen aurretiazko administrazio-bidearen agorpena, lan-gatazka prozesuaurreko fase batean ebazten saiatzen diren bide gisa, halatan ekiditearren kasuko liskarra ordena sozialeko epaitegi eta auzitegietaraino iristea.

Gatazkak berezkoak dira lan-harremanen sisteman, non alderdiek (langilea eta enpresa) ezinbestean baitituzte interes kontrajarriak. Arlo honetan, bitartekaritzak ahalbide franko ditu laneko desadostasunei aurre egin eta haiek ebatzeko. Laneko gatazken gehiegizko judizializazioak berandutze ohargarria eragin du auzibidera eramaten diren gatazken ebazpenean, eta horrek tentsioa areagotzearen arriskua ekartzen du, zeina beste bide bizkorrago bat erabiliz saihestu egingen bailitzateke.

Auzibidea nagusiki juridikoa da, eta lan-prozeduran, duen malgutasuna gorabehera, ez dira aintzat hartzen gatazkaren konnotazio sindikal, sozial eta ekonomikoak, ez baita bermatzen ez sindikatuen ez enpresari-elkarteen parte-hartzerik. Prozesu estrajudizialek, ordea, alderdien bestelako esku-hartze bat ahalbidetzen dute, arinagoa eta azkarragoa.

Nafarroan badira bi organo gatazka-ebazpen estrajudizialaren aferan eskudun direnak: Nafarroako Gobernuaren Lan Zerbitzua eta Nafarroako Lan Auzitegia. Bi organo horiek eskumen berberak dauzkate gatazka-ebazpen autonomoaren gaian, zeina demanda aurkeztu aurretik jorratzea

nahitaezkoa baita lan-alorrean. Bi baliabide horiek osoki finantzatuak dira aurrekontu publikotik.

Lan auzitegia sortu zen Nafarroako Foru Komunitateko lan-gatazkak ebatzeko prozedura estrajudizialei buruzko lanbidearteko akordio bate-tik, zeina Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak eta UGT eta CCOO sindikatuek sinatua izan baitzen. 1996ko urtarrilaren 11n izenpetu zen, Langileen Estatutuaren 83.3 artikulua ezarritako-aren babesean.

Lan Zerbitzuaren kasuan, bitartekaritzan ari-zen dira Nafarroako Gobernuaren legelariak, eta mugatzen dira egintzaren emaitzaz (adostasuna ala desadostasuna) akta egitera.

Bitartekaritza intrajudizialari dagokionez, 2015ean Lan Auzitegiak akordio bat sinatu zuen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiarekin, bitartekaritzarako igorpena ahalbidetzeko. Errealitate da oso prozedura gutxi igortzen direla; izan ere, une horretaz geroztik ez dira dozena bat izatera iritsi.

III. KONKLUSIOAK

I. Bitartekaritzaren eta bestelako jardun errestitatiboan dibulgazioa.

Nafarroako Gobernuak eta administrazio publikoek gatazka-ebazpen baketsua behar dute bultzatu, arlo guztietan bitartekaritza eta beste jardun errestitatibo batzuk bultzatuz eta sustatuz, baita arlo judizialean ere. Azpimarra berezia jarri behar dute bitartekaritzak eta gatazka-ebazpeneko beste bide batzuek ezarpen apalagoa duten arloetan, hala nola arlo zibilean, administrazioarekiko auzi-anean eta lan-arloan. Horretarako, ezinbesteko deritzogu bitartekaritza eta beste teknika errestitatibo batzuk honakoak bezalako ekintzen bitartez ezagutarazteari:

- Lurralde osoan egitea bitartekaritzaren eta beste jardun errestitatibo batzuen dibulgaziorako eta berri emateko kanpainak, hezkuntza- zein administrazio-erakundeetan, gatazkei aurre egite-ari buruzko aldaketa sozial bat ahalbidetuko dutenak, kontrajartze-metodo batetik lankidetzazko soluzio-metodo batera pasaturik.

- Herritarrei bitartekaritzaz eta beste jardun errestitatibo batzuek, eta haien abantailaz eta onurez informazioa emateko puntuen sare bat eratzea.

II. Bitartekaritzarako eta bestelako jardun errestitatiboetarako bidea edukitzea.

Ponentziak beharrezko deritza bitartekaritzako eta bestelako jardun errestitatiboetako zerbitzu

publikoak ezartzeari, pertsona guztiek haietarako bidea eduki dezaten bermatzeko eta herritarrengan konfiantza sortzeko. Horretarako, proposatzen dugu:

- Nafarroako lurralde osoan bermatzea bitartekaritzako eta gainerako jardun errestitutiboetako zerbitzua eman dadila, arreta berezia jarri landa-eremuetan.

- Bermatzea jardun errestitutiboak Foru Komunitateko hizkuntza ofizialetan egin ahal izatea, indarreko foru araudiari jarraikiz.

- Baliabiderik gabeko pertsonen bitartekaritza eta esparru estrajudizialeko eta intrajudizialeko gainerako jardun errestitutiboetarako bidea bermatzea, doako laguntza juridikoaren bitartez.

- Interpretatea edukitzeko bidea bermatzea.

- Bitartekaritza eta gainerako jardun errestitutiboak aurrera eramateko egoki diren bitarteko fisiko, material eta ekonomikoak bermatzea.

III. Bitartekaritzako eta Justizia Errestitutiboko zerbitzuen kalitatea

Administrazio publikoari dagokio bitartekaritza eta beste jardun errestitutibo batzuk kalitatezkoak izan daitezen bermatzea, horren baitan egonen baita haien efizientzia eta finkapena.

Bitartekaria edo ahalbidetzailea ezinbesteko elementua da justizia errestitutiboko teknikan eta, neurri handian, esku-hartzearen arrakasta zor zaio prozesuan esku hartzen duten pertsonen prestakuntzari eta espezializazioari. Bitartekaritza eta beste esku-hartze batzuk kalitatezkoak izatea ziurtatzeko, proposatzen dugu orain arteko esparru zibil-familiakoa gairatuz orokortasunez arautu dadila bitartekaritza, Nafarroan diharduten bitartekari eta ahalbidetzaile guztiak barne hartuko dituen araubide bat ezartze aldera, berdin delarik zer jardun-esparru zehatzetan esku hartzen duen. Araubide horrek gutxienez ere honako zertzelada hauek bildu beharko ditu:

- Prestakuntza espezifikoa eta iraunkorrerako irizpideak, espezializazioa bermatuko dutenak.

- Genero-berdintasuneko prestakuntza espezifikoa bermatuta egotea.

- Neurriak, bermatuko dutenak bitartekaritzako eta gainerako jardun errestitutiboetako prozesuetan bete egiten direla, printzipio gidari diren aldetik, borondatezotasuna, konfidentzialtasuna, alderdien berdintasuna eta bitartekariaren inpartzialtasuna eta neutraltasuna.

- Kobitartekaritzaren araubidea.

- Jardunbide egokien kode deontologiko baten taxuketa.

- Zehapen-araubide bat ezarri beharko du, bitartekari diharduten entitate nahiz pertsonen bitartekaritza eta beste jardun errestitutibo batzuetan ezarritako betebeharrak urratzearen kasurako.

- Bitartekari diharduten pertsona eta entitateen erregistro publiko bat ezarri beharko du.

- Bitartekaritzako kalitatearen zigilua arautzea.

- Egokiak diren ebaluazio-bideak ezarri beharko ditu, zerbitzuaren kalitatea organo publiko baten edo gainbegiraketa publiko organo independente baten bitartez bermatzekoak.

IV. Esparru judiziala

Bitartekaritza intrajudizialaren abantailak eta onurak begi-bistakoak dira, eta esanbidez aitortuak izan dira Europa-mailan eta nazioartean. Batetik, praktikotasun- eta efizientzia-arrazoiengatik; eta bestetik, bitartekaritzak ahalmena duelako emaitza bat lortzeko –akordioa–, zeina alderdi guztiek bidezkotzat jotzen eta sentitzen baitute. Horregatik guztiagatik, beharrezko deritzogu bitartekaritza intrajudiziala indartzeari eta beste jardun errestitutibo batzuk bultzatzeari. Horretarako, proposatzen dugu:

- Epailen, magistratuen eta justizia-administratioko legelarien artean bitartekaritza intrajudiziala sustatu eta bultzatzea, bitartekaritzarako bideraketaren aldeko lana eginez, batez ere oraindik ezarrita ez dagoen esparruetan.

- Operadore juridiko guztiei prestakuntza egokia eta jarraitua bermatzea bitartekaritzako eta justizia errestitutiboko teknikan.

- Operadore juridiko guztiei eta, orokorrean, baliabide judizial guztiei –lantalde psikosozialak, elkarguneak, bitartekaritza-zerbitzuak eta abar– genero-berdintasunaren alorreko prestakuntza berezia bermatzea.

- Bideraketa-irizpide argiak ematen dituzten protokoloak ezartzea.

- Bitartekaritzaren eta beste teknika batzuen garapen egokirako aproposak diren giza baliabideak eta baliabide materialak bermatzea; esate baterako, bideraketa- eta kudeaketa-egiturak eratuz.

- Bitartekaritza txertatzea espetxe-diziplinaren alorrean.

V. Esparru zibil-familiakoa

Nafarroa familia-hausturako prozesuetan laguntza-baliabide desberdinak txertatuz joan da,

hobetu egin dutenak familiei administrazio publiko-tik ematen zaien zerbitzua. Apustu egiten dugu zerbitzu horiek zabaltzen eta horien espezializazioa eta kalitatea bermatzen segitzearen alde. Horretarako, proposatzen dugu:

- Familia elkartzeko guneak arautzea, zerbitzuaren kalitatea bermatzeko.

- 12/2022 Foru Legea berrikustea, maiatzaren 11koa, haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko. Xedea da hala bitartekaritza nola beste jardun errestauratibo batzuk txertatzea familiari sostengua emateko jarduketan artean.

- Harreraren eta adopzioaren araubidean bitartekaritza aintzat hartzea.

- Bitartekaritza-organoaren figura arautzea, xede harturik Harrera Plana, Babeserako Banako Plana eta Familia Berriz Batzeko Plana egitea.

VI. Administrazio-esparrua

Bitartekaritzak lotura dauka erakunde publiko guztiei exijitzen zaien administrazio onaren printzipioarekin, zeina oinarrizko eskubide bezala aitortuta baitago Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 41. artikuluan. Modua ematen du gardentasunaren, gobernu onaren, efizientziaren, baliabide publikoen kudeaketa hobearen, eta herritarrentzako arreta eta erantzun hobearen helburuak betetzeko.

Eremu honen barrenean, bitartekaritza eta beste teknika errestauratibo batzuk bereziki interesgarri gertatzen dira eskola-ingurunean, erkidegoaren kideen arteko gatazkak ebazteko ordezkoprozedura gisa eta gatazka-kudeaketa sustatzeko bitarteko gisa.

Beste jardute-eremu garrantzitsu bat enpresa publikoena da, haiek bitartekaritzako eta gatazka-ebazpeneko beste teknika egoki batzuk bultzatu ahal eta behar baitituzte enpresa-eremuan, gatazka-ebazpena bitartekaritzaren esanetara jartzen duten klausulak txertatuz eta beste metodo apropos batzuen bidez. Horretarako, proposatzen dugu:

- Bitartekaritza sustatu eta bultzatzea Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eremuan eta erakunde-sektore publikoan.

- Administrazio-organo bakoitzean kudeaketaren eta bitartekaritzarako bideraketaren arduradunaren figura identifikatzea. Pertsona horrek prestakuntza espezifikoa izan beharko du bitartekaritzaren eta jardun errestauratiboan alorrean, bai eta esperientzia ere administrazio publikoekiko gatazketan.

- Protokoloen bitartez zedarritzea bitartekaritzaren esanetan jartzeko modukoak diren gaiak, eta zehaztea bitartekaritza-prozesuetan administrazioaren ordezkari gisa esku hartu behar duen pertsona.

- Bitartekaritzan iritsitako akordioa betetzen dela bermatzeko bideak ezartzea.

- Gatazkak bitartekaritzaren esanetan jartzeko kontratu-klausulak eta akordioak txertatzea Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta erakunde-sektore publikoak eginiko kontratu guztietan.

- Zehapen-prozeduran sustapena ematea gatazka-ebazpenerako ordezkoprozedura metodoei, diruzehapenen ordezkoprozedura neurrien bitartez.

- Behar adinako bitartekoz eta baliabidez hornitzea administrazioa, GEOM-Gatazka Ebazpenerako Ordezkoprozedura metodoen egiazko ezarpena erdieste aldera.

Hezkuntzaren eremuan, ikastetxeetan curriculum- eta antolaketa-ikuspegitik elkarbizitza egokiarri eustearrekin zerikusia duten edukien jorratzea indartu dadila proposatzen dugu, horretarako honako neurri hauek abiarazita:

- Bizikidetzako eta bizikidetzarako hezkuntza sendotzea, ikastetxe bakoitzeko programazio didaktikoetan sartuz berdintasunerako hezkuntzarekin, bakearekin, indarkeriarik ezarekin eta gatazka-ebazpen baketsuarekin zerikusia duten edukien lanketa. Horrek helburu izanen du ikasleei prestakuntza ematea herritartasun arduratsu eta baketsuan jarduteko, pertsonen berezitasunekiko begirunez eta bakoitza baloratuz den horretan eta izan nahi duen horretan.

- Berdinen arteko laguntza zehazteko ereduak sustatzea errealitatearen interpretaziorako paradigma gisa, eta hezkuntza-inguruneetan bizikidetzako baketsu eta demokratikoa sustatzearekin zerikusia duten gaietan esku hartzea.

- Gatazketan lagun egiteko eta horiek ebazteko prozesuetan esku hartzeko beharrezkoak eta nahikoak diren giza baliabideak eta antolaketak ak paratzea, pertsonarteko harremanetako indarkeria eta tratu txarra desagerrarazte aldera, bizikidetzako hezkuntzarako plan eta proiektuetarako hezte-ekintzak koordinatzeaz gain.

- Ikastetxeetako elkarbizitza buruz Nafarroako Foru Komunitateak daukan araudia berrikusi, hobetu eta gaurkotzea, egungo zirkunstantzietara eta premietara egokituz hura. Bereziki berrikusi eta hobetu beharrekoa da Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko

eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzko abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretua.

VII. Lan-esparrua

Ponentziak ez du akordiorik iritsi lan-esparruan.

VIII. Zerga-esparrua

Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren bidez Nafarroako Gobernuaren premiazkoa azterlan bat egin dezan hiru hilabeteko epean, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean bitartekaritza eta beste jardun errestauratibo batzuetarako pizgarriak eta/edo onura ekonomikoak eta fiskalak ezartzeko aukerari buruz.

I. ERANSKINA

Ponentzian parte hartu duten pertsonak:

- Rafael Sainz de las Rozas, Nafarroako Gobernuko Justiziako zuzendari nagusia, eta Jorge Ollero Perán, Nafarroako Gobernuko Zigor Beterazpeneko eta Justizia Errestauratiboko Zerbizuko zuzendaria.
- Tim Chapman, Justizia Errestauratiboaren Europar Funtseko lehendakaria, eta Ian Marder, Maynooth-eko Unibertsitateko irakasle eta Europako Kontseiluaren aholkuemailea justizia errestauratiboari buruzko 8. gomendioan (2018).
- Carmen Guil Román, Bartzelonako probintziauzitegiaren 3. ataleko magistratua eta GEMMEko lehendakaria.
- Gema Varona Martínez, Kriminologiaren Euskal Institutuan ikerketa-doktore iraunkorra.
- Miguel Martínez de Lecea eta Belén Iribarren Goñi, Iruñeko Abokatu Elkargoaren ordezkariak.
- Aitor Tapia, Tafallako Abokatu Elkargoaren ordezkaria.
- Bernardo Lacarra eta Rogelio Andueza, Lizarrako Abokatu Elkargoaren ordezkariak.
- Luis Miguel Arribas eta Belén Echave, Tuterako Abokatu Elkargoko Dekanoa eta Dekanordea.
- Rosa Ramos Torío, Nafarroako Psikologia Elkargoko Dekanoa.
- Maite Eraso Ascunce, Gizarte Lanaren Elkargo Ofiziala ordezkaturik.
- Angel Luis Chocarro, Nafarroako Ekonomisten Elkargoko Dekanoa.
- Teresa Hualde Manso, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbide Zibileko katedraduna.
- Victoria Sánchez Pos, Nafarroako Unibertsitateko Zuzenbide Prozesaleko irakaslea.
- Manolo Ledesma eta Carlos Polite, ANAME-Nafarroako Tartekaritza Elkartearen ordezkaturik.
- Elena Sarasa, Mediación Navarra ordezkaturik.
- Paz Francés Lecumberri, doktorea eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle kontratatua.
- Pilar Peña eta Marian Aniz, DIRIME MEDIACIÓN elkartearen ordezkaturik.
- Rosa Aranguren, Nafarroako Gobernuko Familiaren eta Adingabeen Atalekoa.
- M. ^a Paz Benito, Epaile Dekanoa eta Iruñeko 3. zenbakiko instrukzio-epaitegiaren titularrak.
- Elena Cerdán, Fiskala.
- Ana Carmen Arboniés, espetxe-zaintzako Fiskala.
- Jesús Jiménez, Justiziako Gizarte Zerbitzuko zuzendaria, eta Izaskun Gartzaron, Nafarroako Delituen Biktimei Laguntzeko Atalaren burua.
- Carmina Rivera eta Marisol, adingabeen ekipo psikoterenkoetakoak.
- Javier Zubicoa, Nafarroako Gobernuko Lan Zerbitzuko zuzendaria.
- Alberto Pascual, Nafarroako Lan Auzitegiko idazkari nagusia.
- Ana Clara Villanueva, abokatua, bitartekaritza aditua.
- José Miguel Gómez, Nafarroako Notarioen Elkargoaren ordezkaturik.
- Augusto Paredes, UGT sindikatuaren ordezkaria.
- Sonia Ontoria, ELA sindikatuaren ordezkaria.
- Pilar Arriaga, CCOO sindikatuaren ordezkaria.
- Imanol Karrera, LAB sindikatuaren ordezkaria.
- Maica Quesada, Gurutze Gorriaren ordezkaria.
- Itziar Irazabal Zuazua eta Leonor, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Berritasun eta Bizikidetzaren Ataleko burua.
- Leyre Medrano, Nafarroako Fiskala.
- Margarita Pérez-Salazar, 10. zenbakiko Familia Epaitegiko magistratua.
- Javier Fuertes, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiko magistratua.
- Javier Pérez Font, Arartekoaren aholkulari teknikoa.
- Carlos Fernández Valdivielso, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioko idazkari nagusia.

10-22/CIE-00003. Ikerketa batzorde bat eratzea, zenbait hitzarmen eta kontraturen bidez maskarak eta osasun arloko materiala erostearen gainekoa.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko azaroaren 17an egindako Osoko Bilkuran, ezetsi du Navarra Suma talde parlamentarioak aurkezturiko proposamena, zenbait hitzarmen eta kontraturen bidez maskarak eta osasun arloko materiala erostearen gaineko ikerketa batzorde bat eratzekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
